

Enekoitz Esnaola

«Adituek iragarri zuten Txinakoa ez zela txantxetakoa eta koronabirusaren krisia etorriko zela Europara ere, baina duela gutxi ez genuen sinisten hau guztia gertatuko zenik». Hala dio Joseba Egibar EAJko legebiltzarkideak (Andoain, Gipuzkoa, 1959). «Planeta osoa dago dantzan, eta asmatu egin beharko da erabakietan».

EAEko sistema publikoa nola ari zaio erantzuten?

Euskal sistemak erakutsi du baduela egokitzeko malgutasuna eta baduela gaitasun propioa. Oposizioek diote profesional onak ditugula osasun arloan, baina sistemak ez duela erantzun. Kasu zehatz batzuetara jo dute gabezia azaldu nahian, eta agian egongo dira batzuk, baina euskal sistema bikain ari da erantzuten. Oso iritzi publiko ona du; orain igual lehen baino hobea, gainera.

Eusko Legebiltzarreko Diputazio Iraunkorrean «egin ahal izan diren akatsetatik ikastearen alde» egin zenuen. Eusko Jaurilaritzak egin al ditu akatsak?

Euskal instituzioen erantzuna ere bikaina izaten ari da. Ezusteko baten aurrean erreakzionatzen jakin behar da –adibidez, Gasteizen fokua sortzean Urtaran alkateak erreakzionatu zuen–, eta erantzukidetasun bat egon da erakundeen artean, baita gizarte eragileekin eta herritarrekin ere.

Espainiako Gobernuarekin bai?


Hark alarma egoeraren aterkia erabili nahi du gauza batzuk egiteko, baina, [Iñigo Urkullu] lehendakariak, alderdi batzuek eta beste zenbat agintarik azaldu bezala, tokiko errealitatea errespetatuta egin behar da egin beharrekoa. Inorekin hautsi gabe eta xextra bateansartu gabe, geureari eutsi behar diogu. Aldebakartasuna ez da bidea, lankidetzaz baizik.

Lankidetzaz, gobernuaren eta oposizioaren artean ere bai? Legebiltzarrean oposizioa ez dago gustura Urkulluren jarrerarekin.

Legebiltzarra desegina dago hauteskunde deialdia egin zelako, eta Diputazio Iraunkorrek eman dezakeena eman dezake. Gure sistema publikoa sendo dago, eta Jaurilaritzak jarrera harkorra du proposamenak aztertzeko. Oposizioetik diote lagundu nahi dutela, baina, aldi berean, dena hankaz gora jarri nahi dute. Guztiok dakigu orain, legebiltzarra deseginda dagoela eta, ezingo dugula krisiari aurre egiteko legerik onartu.

Eusko Legebiltzarra gaitzeko eskatu du EH Bilduk.

Nik uste dut ezin dela gaitu. Hala ere, ezin al da politika egin? Bai,



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

«Euskal sistemaren eta instituzioen erantzuna bikaina izaten ari da»

Joseba Egibar • EAJko legebiltzarkidea

Egibarrek ere lehentasuna ematen dio koronabirusa geratzeari, eta, halaber, etorkizun hurbilaren kezka dauka, uste baitu krisi latza izango dela. «Erantzukidetasuna» eskatu du «herri akordioak» lortzeko.

egin daiteke, eta egin behar dugu, neurri zorrotzak hartu beharko direlako. Izan ere, adibidez, zenbat jaitsiko da aldundien diru sarrera: %25? %30? Gehiago? Gauza asko bidean geldituko da, baina oraindik ez gara behar bezala jabetu izango den inpaktuaz.

EAEko hauteskundeak aipatu dituzula, noiz egin ahalko dira?

Apirilaren 5ekoak deitu aurretik lehendakariak esan zuen apirilaren 5etik urriaren 25era artean izango zirela, eta garbi dago orain urriaren 25etik gertuago egongo direla apirilaren 5etik baino. Ez dakit uda aurretik egiteko modurik egongo den. Kalera ateratzen hasten garenean jendea esatea bere egitekoen artean botoa ematera joatea dela, ez dakit... Nor-maltasun fase bat beharko da.

PSE-EErekin koalizio gobernuan zaudete Eusko Jaurilaritzan ere, eta ikuspuntu desberdinak azaldu dituzue funtsezkoak ez diren lan jardueren dekretuaz.

«Euskal Herri txiki honetan aukera izan eta lehen unetik egin zen sistema publikoaren aldeko apustua, ona»

«Koronabirusaren krisiaren inpaktua izugarria izango da, eta erabaki sakonak hartu beharko dira, ez azalekoak»

PSEk zer egingo du, bada? Agintzen dionari jarraitu. Sanchezek hau esaten badu, PSEk gauza bera esaten du, baina ez da jabetzen hemengo errealitateaz, eta hori oso tamalgarria da, nire ustez.

PSE ez da ateratzen Madrilgo agintarien arrastotik sekula santan, eta berdin dio ondo ala gaizki dagoen. Horrek ematen du talde politiko baten benetako neurria.

EAJ tinko atera zen enpresak ez geratzearen alde. Lantokiak ez al dira birusaren kutsatze gune arriskutsuak?

Lehentasuna koronabirusa gelditzea da, eta, gero, ekonomikoki okerrren daudenak laguntzea eta enplegua sortzea. Baina enpresek ezin dute

martxa geratu. Pertsonak oxigenoa behar du bizitzeko, eta ekonomiak eta enpresek ere behar dute gutxieneko hori. Horrez gain, enpresa txikiek, autonomoek, merkataritzak eta gainontze-

koek beharko dituzte hilabete batzuetan irauteko neurriak, ito egingo baitira bestela. Gure osasun sistemak sendotasuna, humanismoa eta berdintasuna erakutsi ditu, baina krisi honek jarraitu egingo du, eta enpresetan zergatik ezin daitezke zorrotz ezarri osasun-segurtasun neurriak? Enpresek ere behar dute oxigenoa, gutxieneko bat. Mundu guztiak aitortzen du hori, baita sindikatuak ere, nahiz eta gero jendaurrean nahi dena esaten den. Nik uste dut batzuek neurria galdu dutela, eta iparra ere bai.

Auzitan jarri behar al da gaur egungo gizarte eredua edo sistema? Berriki gertatu da Zaldibarko hondamendia ere.

Zaldibarko zabortegian zaintza publiko bat egin izan da, eta aztertuta beharko da ondo ala gaizki egin den. Garbi dagoena da haren kudeaketa pribatua dela, eta In-gurumen Sailean zer pertsona eta alderdi egon diren. Bestetik, II. Mundu Gerraren ondoren Europan, orokorrean, ongizate gizar-tearen eredu bat jarri zen martxan. Hori hedatua dago, gutxiago ala gehiago; zer esanik ez gure Euskal Herri txiki honetan, aukera izan eta lehen unetik egin zelako sistema publikoaren aldeko apustua, ona: osasungintzan, hezkuntzan, segurtasunean... Hori gehiago sendotzeko, ordea, diru sarreraren muga daukagu.

Enpleguaren sorrera da diru sarrerak handitzeko moduetako bat. Beste bat, fiskalitatea.

Laster egokituko da erkidegoan dugun fiskalitatea berrikustea. Egungoak onurak eman ditu. Baina krisi honen aurrean orokorrean hartu beharko dira erabaki sakonak. Koronabirusaren inpaktua izugarria izango da, eta hartu beharreko erabakiek ez dute izan behar azalekoak, eta are gutxiago estetikoak, [diputatu] batzuk dieten kontuarekin dabil-tzan moduan. Gizarte hau erabat desorekatuta geldituko da, eta funtzio publikoak, beste garai batzuetan egin izan duen bezala, bere ekarpena egin beharko du.

Zer ekarpen mota?

Bere garaian funtzionarioen soldarak izoztu ziren, aparteko soldataren bat ez zen jaso... Ez dakit antzeko neurriak hartuko diren, baina gogoetak orokorra eta sakona izan beharko du. Batera aztertuta behar da egoera.

Akordio zabalen alde zaudete?

Herri akordioak beharko dira, denok onik ateratzeko. Erantzukidetasuna izatea da giltzarria.

ETZI

Nafarroako Parlamentuko taldeak